ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko otsailaren 13a, asteazkena • 19 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AÑANAKO UDALA

**Jendaurrean jartzea etxez etxeko laguntza zerbitzuko eskumenak eta kudeaketa agindua lagatzeko hitzarmena, Arabako Foru Aldundiaren eta Añanako Udalaren artekoa**

Udalbatzak, 2018ko apirilaren 27ko ohiko bilkuran, erabaki zuen onestea udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren alorrean dituen eskumenak Arabako Foru Aldundiaren esku uztea zehazten duen hitzarmena formalizatzea eta zerbitzu hori Añanako udalerrian osorik eskaintzeko ardura Arabako Foru Aldundiari ematea.

Erabaki honen aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, bat etorriz Administrazio auzietarako jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin. Hala ere, hori baino lehenago, eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. “Hori guztia bat etorriz lehen aipaturiko Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin; hala ere, egoki iritziz gero, beste edozein egintza edo errekurtso abiarazi ahal izango duzu zure eskubideak aldezteko.”

Gesaltza Añana, 2019ko otsailaren 5a

*Alkatea*
*JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.13 06:39:30 Z